

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntza bati behin betiko onespena ematea, Frai Francisco ibilbideko 21. C zenbakian dagoen lursailaren kalifikazio xehatuari dagokionez

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2015eko uztailaren 31n egindako premiazko eta ohiz kanpoko bilkuran:

Gaia: Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntza bati behin betiko onespena ematea, Frai Francisco ibilbideko 21. C zenbakian dagoen lursailaren kalifikazio xehatuari dagokionez.

Erabaki proposamena

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatze aldera Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketarako Zerbitzuak idatzitako proiektua ikusi da, zeina Gasteizko Frai Francisco ibilbideko 21 C-an dagoen lursailaren ingurukoa baita, hain zuzen, egun duen tokiko ekipamendu orokorreko kalifikazio xehatua aldatu eta hirugarren erabilerakoa izatera pasatzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko apirilaren 20an egindako bilkuran, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntzaren proiektua onetsi zuen, zein Gasteizko Frai Francisco ibilbidearen 21 C lursailaren ingurukoa baita; hain zuzen, egun duen tokiko ekipamendu orokorreko kalifikazio xehatua aldatu eta hirugarren erabilerakoa izatera pasatzeko.

2012ko maiatzaren 25ean egindako ohiko bilkuran, aipatutako plan orokorraren xedapen-aldaketari hasierako onespena ematea onetsi zuen udalbatzak, baita aldaketari zegokion dokumentazioa jendaurrean jartzea ere, hilabeteko epean, interesa zuen edozein entitatek edo pertsonak aztertzerik izan zezan eta egokitzen jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan.

Udalbatzaren erabaki hori 2012ko ekainaren 20ko ALHAOn argitaratu zen (71 zk.), bai eta 2012ko ekainaren 12ko El Correo zein Diario de Noticias de Álava egunkarietan, aldakuntzari buruzko dokumentazioa hilabete batez jendaurrean jarri zelarik. Ez da inolako alegaziorik aurkeztu denbora horretan.

Gasteizko Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluak aldaketa aztertu ondoren, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa horren aldeko txostena egin zuen 2012ko uztailaren 9an egindako ohiko bilkuran, aholku kontseilu horren idazkariak egindako egiaztatgiriari jasota ageri denez.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra —zeinen testu bategina Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak otsailaren 25ean emandako 143/2003 Foru Dekretuaren bidez behin betikoz onetsia baita— 2003ko martxoaren 31ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (37. zk.) argitaratu zen. Bertan jasotzen da 2010eko otsailaren 1ean udalbatzak hartutako erabakiaren bidez aldatu zen lursailaren kalifikazio orokorra eta xehatua.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapen aldakuntza egiteko proiektu honen xedea da lursailaren erabilera xehatua egokitzea garatuko diren jarduerak ahalbidetzeko, izan

ere egun udalaren hainbat enpresaren egoitza dago bertan, eta horrek hirugarren sektorearekin lotutako jarduerak jartzera bultza dezake.

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren agiri grafikoetan definitua dago lursaila, zeinek egoitzetarako kalifikazio globala eta tokiko ekipamendu orokorreko kalifikazio xehatua baitu egun, "Lerrokadurak eta kalifikazio xehatua" izeneko planoekin bat; aldaketaren xedea kalifikazio xehatua aldatzea da, eta hirugarren sektoreko erabilera ematea.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zati bateko aldakuntza horri dagokion proiektuan jasota dago oroit-idazkia, non honako hauek aipatzen baitira: haren xedea, aurrekariak, ekimena, haren egokiera eta beharren justifikazioa, proposamenaren deskribapena eta indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, baita planoak eta dagokion dokumentazio grafikoa ere.

Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak txosten juridikoa eman zuen 2012ko irailaren 5ean, eta bertan Plangintza Orokorrean aipatu den aldakuntza egiteari behin betiko onspena ematea proposatu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dute plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxienezko dokumentazioa. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berri-kuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua— 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolamenduko tresnen proiektuak onesteko; behin-behineko edo behin betiko onspena ematea, berriz, udalbatzari dagokio.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua) 123.1.i— artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzak du eskumena plangintza orokorrari hasierako onspena emateko.

Proposatzen den antolamendu aldaketaren ildotik —dosieraren parte diren hirigintza-agiritan justifikatzen da horren beharra eta egokiera—, aipatutako arauak aintzat harturik eta Toki Jaurbidearen Oinarriari buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriari buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4 a) artikuluan aitortzen dion aginpidea baliaturik, hauxe proposatzen dio Hirigintzako Irizpen Batzordeak udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onspena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren xedapen aldakuntzari, zein Gasteizko Frai Francisco ibilbidearen 21 C lursailaren ingurukoa baita; hain zuzen, egun duen tokiko ekipamendu orokorreko kalifikazio xehatua aldatu eta hirugarren erabilera izatera pasatzeko.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Aldatutako arauak

Hirugarren sektoreko erabiltzeko baldintzak (lursailean bulego eta banketxeen erabilera xehatua) arautzen dituen HAPOaren atalak ezarritakoaren menpe egongo da lursaila. Aldatu egiten da Kalifikazio xehekatuko orria, 6.03.44 izenekoa.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abuztuaren 4an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE